



ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA

ERRESONANTZIA MAGNETIKOA (EM)

ZER DA ERRESONANTZIA MAGNETIKOA?

ERRESONANTZIA MAGNETIKOA irudi bidezko diagnostiko-teknika bat da; ez ditu ez X izpiak ez beste edozein osagai erradioaktibo erabiltzen eta ez ditu ondorio kaltegarriak. Ez da ezagutzen erresonantziak fetuan duen eragin kaltegarririk. Hala ere, ez da gomendatzen lehenengo hiruhilekoan haurdun dauden pazienteei egitea, benetan beharrezkoa ez bada.

ERRESONANTZIARAKO PRESTATU

Miaketa egiteko deitzen dizutenean, jantzigela batera eramango zaituzte. Bertan jantzi guztia kenduko duzu, barruko arropa izan ezik (bularretakoa kendu behar da), eta mantala bat emango dizute.

ERRESONANTZIA MAGNETIKOAK eremu magnetikoa erabiltzen du eta, horregatik:

- EZIN DIRA SARTU TAUPADA-MARKAGAILUA daramaten pertsonak, ohiz kanpoko kasuetan izan ezik.
- Eramaten dituzun metalezko objektu guztiak kendu beharko dituzu: erlojua, betaurrekoak, dirua, urkilak, lepokoak, belarritakoak, eratzunak, metxeroa, giltzak, telefono mugikorra, kreditu-txartelak eta abar.
- Garezurreko miaketetan begietako makillajea kendu beharko duzu.
- Langileei jakinarazi beharko diezu gorputzean METALEZKO TXIRBILIK duzun, batez ere begietan, baita gorputzaren barruan edozein motatako METALEZKO OSAGAIK dituzun ere (metraila, klip kirurgikoak, protesiak eta abar).

NOLA BURUTUKO DA ERRESONANTZIA MAGNETIKOA? ZERTAN DATZA?

Erresonantziaren gelan sartzen zarenean, eta etzan ondoren, ziur egon behar zara jarrera erosoan zaudela, geldirik, MUGITU GABE, egon beharko zarelako miaketak irauten duen denbora osoan.

Erresonantzia egiten dizuten bitartean beti bezala arnas dezakezu, kontrakoa adierazten ez badizute.

Behar izanez gero, probaren emaitza hobetzeko, kontraste likidoa injektatuko zaizu zainean. Arraroa da erreakzio alergikorik egotea, baina bero lokala edo beroaldiak nabaritzen badituzu, langileei jakinarazi beharko diezu.

Erresonantziaren gela itxita egon behar da baina, miaketa osoan zehar, BISUALKI kontrolatuta egongo zara, eta osasun-langileekin HITZ EGIN ahal izango duzu denbora osoan.

Miaketa egiten ari zarela, soinu erritmikoa entzungo duzu, kolpekatze bat bezala, teknika honetan OHIKOA dena. Soinuaren maiztasuna eta intentsitatea aldakorrek dira, eta nabaritutako duzun deserosotasun bakarra izango da.

Langileek urratsez urrats azalduko dizute zertan datza prozedura, eta zalantzak galdetu ahal izango dituzu miaketa egin baino lehen eta hori egin ondoren.

Edozein arrazoiengatik etortzerik ez baduzu, mesedez, jakinaraz iezaiozu zentzura 944123073 telefonora deituz, eta horrela beste pertsona batek hartuko du zure tokia.



ERRESONANTZIA MAGNETIKOA (EM) EGITEKO INFORMATUTAKO BAIMENA

A. PROPOSAMEN MEDIKOAK ETA AUKERAK

- Erresonantzia magnetikoa irudiak lortzean datza. Horretarako, gorputza iman baten barruan sartzen da eta irrati-maiztasuneko uhinak aplikatzen dira aztertu beharreko tokian jartzen diren antena batzuen bidez. Proba egiten ari zarela, kolpekatze baten antzekoa den soinu erritmikoa entzungo duzu, teknika honetan ohikoa dena.
- Gorputzeko tenperatura pixka bat igotzen dela nabari dezakezu.
- Behar izanez gero, irudiak hobetzeko, kontraste likidoa injektatuko zaizu zainean.

AUKERAK:

- Kaltzioak eragindako lesioak aurkitu behar direnean, miaketa honen ordez ordenagailu bidezko tomografia erabil daiteke.
- Klaustrofobia duten edo imanaren barruan sartu ezin diren metalezko objektuak dituzten pazienteetan:
 - Garezurraren eta bizkarrezurraren azterketen eta azterketa muskulueskeletikoen ordez ordenagailu bidezko tomografia erabil daiteke.
 - Gorputzaren azterketen ordez ekografia edo ordenagailu bidezko tomografia erabil daitezke.
 - Odol-hodien (hau da, arterien eta zainen) azterketen ordez ekografia, ordenagailu bidezko tomografia edo arteriografia digitala erabil daitezke.

ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK:

ABANTAILAK:

- Ez du erradiazio ionizatzailerik erabiltzen.
- Odol-hodiak (arteriak eta zainak) inbaditzailea ez den erara aztertzeko aukera ematen du, kateterrik sartu behar gabe.

DESABANTAILAK:

- Erresonantzia magnetikoak ez ditu kaltzioak eragindako lesioak behar bezala aurkitzen.
- Miaketak luzeak dira eta zaila izan daiteke denbora guztian geldirik egotea.

B. ARRISKUAK ETA ARAZOAK:

- Erresonantzia magnetikoak, potentzia handiko iman bat duenez, gorputzaren barruan dauden metalezko objektuak berotzea eta mugitzea eragin dezake, bestea beste koklearako inplanteak, taupada-markagailuak edo klipak. Horregatik, objektu hauek dituzula jakinarazi behar diezu langileei, miaketa egin daitekeen edo ez erabaki dezaten.
- Erresonantzia magnetiko bat egingo zaien paziente batzuen artean gehien nagusitzen den arazo bat klaustrofobia da; hodi zilindrikoa denez, batzuetan itxi egiten dela dirudi, baina gogoratu: muturretan irekita dago, argia eta aire girotua ditu, eta edozein unetan hitz egin dezakezu miaketa egiten dizuten langileekin.
- Erresonantzia magnetikoetan erabiltzen den kontrastea gadolinioa da. Kontrasteak eragindako erreakzio alergikoak ez dira ohikoak, arinak izaten dira eta erraz kontrola daitezke medikazioarekin. Fibrosi nefrogeniko sistemikoa konplikazio arraroa da, eta nagusitu da giltzurrunetako funtzioan arazoak dituzten pazienteen kasuan, gadolinio-kontrasteetako bat (ez guztiak) injektatu ondoren. Haurduntzei dagokienez, kontrako erreakziorik ezagutzen ez den arren, ez da proba hau gomendatzen lehenengo hiru hilabeteetan.
- Batzuetan berotasuneko sentazioa eta goragaleak nabari daitezke, injekzioa bukatzean desagertu egiten direnak.
- Erradiologiako aditu eta sozietate zientifiko gehienak ados daude gadolinio bidezko EM bat egin ondoren ez dela inolako denborarik itxaron behar edoskitzen jarraitzeko.
- Endoondesteko antena bat erabili behar den azterketetan, lesio lokalak gerta daitezke (narritadura, urradura, odol-galera eta abar).



ERRESONANTZIA MAGNETIKORAKO (EM) SEGURTASUN-GALDEKETA

“x” batekin adierazi erantzun zuzena:

1. ERRESONANTZIA MAGNETIKORIK egin dizute hau baino lehenago?

BAI **EZ**

Non eta noiz? _____

2. Ebakuntza kirurgikorik egin dizute noizbait?

BAI **EZ**

Zein eta noiz? _____

3. Metalezko inplanterik, gorputz arrotzik edo metalezko objekturik duzu gorputzaren barruan edo larruazalean?

BAI **EZ**

BAIETZ erantzunez gero, zehaztu zein motatakoa “x” bat behar den tokian jarritz:

TAUPADA-MARKAGAILUA

INTSULINA-PONPAK

METALEZKO SUTURAK

UBG

METALEZKO KLIPAK

SHUNT BENTRIKULARRA

KLIP ANEURISMATIKOAK

KABARAKO IRAGAZKIAK (edo ODOL-HODIETARAKO)

BEGITAKO INPLANTEAK

BEGI BARRUKO GORPUTZ ARROTZA

BIHOTZEKO BALBULA

BELARRIKO INPLANTEAK

AUDIFONOAK

SWAN-GANZ KATETERRA

METRAILA

GILTZADURETARAKO PROTESIAK (aldakak eta abar)

ILTZEAK

ORRATZAK

TATUAJEAK- PIERCINGAK

LARRUAZALEKO ADABAKIA

INFUSIO-PONPAK

HORTZETAKO PROTESIAK (hortzordeak, zubiak, inplanteak eta abar)

PROTESI BASKULARRAK

BESTELAKOAK: _____

4. HESTERAKO KAPSULA ENDOSKOPIKO bidezko azterketarik izan duzu duela gutxi?

BAI **EZ**

Hala izanez gero, kanporatu duzu? **BAI** **EZ**

5. Metalekin egin duzu edo egiten duzu lan?

BAI **EZ**

6. Emakumea izanez gero, haurdun zaude edo egon zaitezke?

BAI **EZ**

7. Alergia diozu sendagaien bati?

BAI **EZ**

Baietz erantzunez gero, zehaztu zein: _____

8. Zain bidezko kontrasterik jarri dizute noizbait?

BAI **EZ**

9. Kontrastearekiko erreakzio alergikorik izan duzu?

BAI **EZ**

Baietz erantzunez gero, zehaztu zein: _____

HORRENBESTEZ, NIRI PROZEDURA EGITEKO BAIMENA EMATEN DUT:

BAI

EZ

EM egiteko baimena ematen dut.

BAI

EZ

Zain barneko kontrastea jasotzeko baimena ematen dut, behar izanez gero.



DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
Datu pertsonalen babesari dagokionez indarrean dagoen araudia betez, CENTRO DE DIAGNÓSTICO VIRGEN BLANCA, S. A. zentroari edozein unetan emango dizkizun datu pertsonalen prozesamenduari buruzko honako oinarritzko informazio hau jakinarazten zaizu.	
Arduraduna	CENTRO DE DIAGNÓSTICO VIRGEN BLANCA, S. A. , IFK A48289250 duena ("Sozietatea").
Prozesamenduaren helburuak	Nagusiak: zerbitzu medikoa eman, kudeatu eta fakturatu, eta legezko betebeharrak bete (batez ere pazientearen historia klinikoari eta eskubideei dagokienez). Bigarren mailakoak: Sozietatearen produktu eta zerbitzuen berri eman, eta zerbitzuaren kalitatea, parte-hartzea saio klinikoetan, azterketa batzorde medikoetan eta argitalpen medikoak hobetu.
Prozesamenduaren zuzenbideko oinarriak	Kontratuzko harremana gauzatu eta legezko betebeharrak, legezko interesa eta, behar denean, baimena bete.
Datuen jasotzaileak	Jasotzaile nagusiak zerbitzu medikoen mailegatzzaileak edo zerbitzu medikoen homitzaileak, prozesamenduaren arduradunak eta, hala badagokio, aseguru-konpainiak izango dira.
Bitarteko datuetarako sarbidea	Batzuetan, Sozietatea bitartekoak jaso dituzten datuetara sartu beharko da, osasun-zerbitzuak eskaini diren bitartean sortutako datuak barne, beharrezkoak direnak zerbitzu medikoa behar bezala emateko edo horren fakturazioa kudeatzeko.
Datuak gordetzeko epea	Legeak ezartzen duen epea edo Sozietaterako erantzukizunak erator daitezkeen epea, baina kontratuzko harremana indarrean dagoen bitartean ere (zerbitzua kontratuepean emanez gero).
Eskubideak	Zure legezko eskubideak erabil ditzakezu dohainik, besteak beste datu pertsonalak eskuratu, zuzendu, ezabatu, mugatu, eraman edo prozesamenduaren aurka egin, Sozietatearekin zuzenean edo posta arruntaren bidez harremanetan jarri Bilbo (Bizkaia), Mendiri Maisuaren kalea, 2 (PK 48006) helbidean, edo posta elektronikoaren bidez dpd@gruposcanner.biz helbidean, kasu guztietan zure NANaren edo zure nortasuna ofizialki erakusten duen beste edozein dokumenturen kopia irakurgarria erantsiz. Horrez gain, Sozietatearen datuen babeserako ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke (dpd@gruposcanner.biz) edo erreklamazio bat jar dezakezu Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren aurrean (www.aepd.es).
Informazio gehigarria	Gure datuen babesari buruzko politikaren informazio osoa eta zehatza kontsulta dezakezu gure bulegoetan jendaurrean jarritako informazioan (kopia erabilgarria eskatu ahal izango duzu etxera eramateko), baina lauki hau eta gero jakinarazten den informazio zehatzeko klausulan ere.

DOKUMENTU HAU SINATU EGITEN DUT IRAKURRI ONDOREN ETA ZALANTZAK GALDETZEKO ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN ONDOREN, HAU DA, EGINGO DIDATENA, AURREIKUSTEN DIREN EMAITZAK ETA PROZESU OSOTIK ERATOR DAITEZKEEN ARRISKUAK ULERTU ONDOREN:

Pazientea / Ordezkaría, pazienteak ezgaitasuna edukiz gero edo adingabea izanez gero:

Pazientearen izen-abizenak eta NANA / Legezko ordezkariaren izena, bi abizen, NANA eta ahaidetasuna:

.....

Sinadura eta data:

Pazientearen edo legezko ordezkariaren UKO EGITEA:

Zehaztutako prozedura EZ EGITEAREN garrantzia eta horrek dakartzan arriskuak ulertzen ditut. Egoera honetan, uko egiteko eskubidea erabiltzen dut.

Pazientearen izen-abizenak eta NANA / Legezko ordezkariaren izena, bi abizen, NANA eta ahaidetasuna:

.....

Sinadura eta data:



DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZEKO KLAUSULA

2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2016/679 Erregelamendua (EB) (hemendik aurrera, DBEO) eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetzeko, eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak igorritako gomendioak jarraituz,

JAKINARAZTEN DA:

- Zuk borondatez emandako datu pertsonalak (nortasunekoak, fakturaziokoak eta eskatutako tratamendua egiteko osasun-datuak) titulartasun pribatuko euskarrietan -automatizatuak edo ez- sartuko dira, eta horien prozesamenduaren arduraduna **CENTRO DE DIAGNÓSTICO VIRGEN BLANCA, S. A.** da, IFK A48289250 eta egoitza soziala Mendiri Maisuaren kalea, 2, 48006, Bilbo dituen. Datu pertsonalen prozesamendua legitimatzen eta justifikatzen duen zuzenbideko oinarria da parte zaren kontratu-harremana edo -lotura gauzatzea, laguntza-zerbitzua ematea, prozesamenduaren arduradunaren edo bitarteko baten legezko interesa eta, hala badagokio, zuk emandako baimena.
- Osasun-zerbitzua behar bezala emateko behar-beharrezkoak diren datuak besterik ez dira eskatuko, eta beharrezkoa izan daiteke bitartekoen harremanetarako datuak biltzea, hala nola, legezko ordezkariak, tutoreak edo haien izendatutako kargurako pertsonak. Osasun-langile, bermatzen dugu jasotako datu guztiak konfidentzialtasun-konpromisoa eta isilean gordetzeko beharra daukatela, eta legez ezarritako segurtasun-neurri guztiak betetzen dituztela.
- Erakundearen eta pazientearen arteko harremana amaitu ondoren, datuak artxibatu eta gorde egingo dira, gutxienez bost urtez azken laguntza-prozesutik hasita. Ondoren, datuak gorde ahal izango dira Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 32. artikuluan aurreikusitako blokeatzeko betebeharra betetzeko, prozesamenduaren ondoriozko erantzukizunak argitzeko helburuarekin, betiere datuen gutxieneko kontserbazioaren oinarria kontuan hartuta, eta dagozkion preskripzio-epeak amaitu ondoren ezabatu egingo dira.
- Emandako datuak erakundearen prozesamenduen erregistroan gordeko dira, zehatz-mehatz **CENTRO DE DIAGNÓSTICO VIRGEN BLANCA, S. A.** zentroaren *Historia kliniko/Pazienteak, Bezeroak* eta, hala badagokio, *Irudiak/Txostenak* izeneko prozesamenduetan, tratamendu medikoa kudeatzeko, proba diagnostikoak egiteko, pazienteari lotutako kudeaketak bideratzeko, zerbitzua kobratzeko fakturak igortzeko edo laguntza-prozesuaren garapenari buruzko informazioa bidaltzeko helburuekin.
- Era berean, jakinarazten zaizu **CENTRO DE DIAGNÓSTICO VIRGEN BLANCA, S. A.** zentroak bere zerbitzuak ematen dituen ospitale pribatuen instalazioetara edo Osakidetzaen menpean dauden instalazioetara (ospitaleko zein kanpo kontsultako instalazioetara) jotzen duten pazienteen historia klinikoak gordetzen eta hartzen dituela historia kliniko erradiologikoak kudeatzeko aplikazio informatikoetan (HIS). Aplikazio horiek erabiltzeak **CENTRO DE DIAGNÓSTICO VIRGEN BLANCA, S. A.** zentroan sortutako historia kliniko pazientearen gainerako dokumentazio klinikoarekin integratzeko aukera ematen du. Horrela, zu alde aurretik aipatutako ospitaleetara edo kontsultategietara joanez gero, zentro horietan zerbitzu bat ematen dizuten osasun-profesionalek HIS sistemaren bidez txertatu diren **CENTRO DE DIAGNÓSTICO VIRGEN BLANCA, S. A.** zentroak igorritako probak eta txosten klinikoak eskuratu ahal izango dituzte, eskatutako osasun-laguntza emateko edo aplikatu beharreko tratamendu medikoak zehazteko helburuekin. Bestalde, mutualitate laguntzaile edo aseguru-etxe bati zerbitzua estaltzeko eskatzen badiotzu, jakinarazten zaizu zerbitzua fakturatzeko ezinbestekoak diren datuak eta informazio pertsonala jakinarazi ahal izango zaizkiela erakunde horiei. Mutualitate edo aseguru-etxe horiek HIS sistemaren antzeko aplikazio informatikoak edo sistemak erabiltzen badituzte, zure informazio pertsonalerako sarbidea zerbitzua kobratzeko behar-beharrezkoak diren datu pertsonaletara mugatuko da.
- Beste alde batetik, zure datu pertsonalak -zure osasun-datuak edo irudi bidezko diagnostiko-tekniketarik eratorritakoak barne- **GRUPO SCANNER VIZCAYA** osatzen duten gainerako erakundeek (Clínica Vicente San Sebastián TC 64, S.L., Centro de Scanner Vizcaya, S.A., Centro de Diagnóstico San Juan de Dios, S.A., Centro de Diagnóstico Virgen Blanca, S.A., Radiología Clínica Vizcaya, S.L., Centro de Diagnóstico Durango, S.L. eta Resonancia Magnética Bilbao, S.A.) jakinarazi ahal izango zaizkie, proba diagnostikoak egiteko, txosten klinikoak igortzeko edo paziente gisa behar bezalako osasun-laguntza emateko helburu bakarrekin. Halaber, jakinarazten zaizu zuk emandako datu pertsonalak **CENTRO DE DIAGNÓSTICO VIRGEN BLANCA, S. A.** zentroari zerbitzuak eskaintzen dizkieten erakundeek (kanpoko aholkulariak eta kudeatzaileak) prozesatu ahal izango dituztela, prozesamenduaren arduradunaren jarraibideen arabera eta, enkarguzko kontratuak eraginda, prozesamenduaren eta konfidentzialtasun-betebeharraren arabera. Zure datu pertsonalak **CENTRO DE DIAGNÓSTICO VIRGEN BLANCA, S. A.** zentroari zerbitzua emateko besterik ez eskuratuko dira, alderdiek sinatutako hitzarmenaren esparruan.
- Nahi izanez gero, sarbide, zuzenketa, ezabapen, mugaketa, aurkaritza eta eramangarritasun eskubideak erabil ditzakezu, **CENTRO DE DIAGNÓSTICO VIRGEN BLANCA, S. A.** zentroari idatziz, Mendiri Maisuaren kalea, 2, 48006 Bilbo helbidean, prozesamenduaren arduradunera zuzenduta, edo dpd@gruposcanner.biz helbide elektronikora mezu bat bidaliz; kasu guztietan zure IFZaren edo zure nortasuna ofizialki erakusten duen beste edozein dokumenturen kopia irakurgarria erantsi beharko duzu. Halaber, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren aurrean erreklamazioak aurkezteko eskubidea duzu.

Adostasunaren adierazgarri, pazienteak edo bere legezko ordezkariak sinatzen du informazio-klausula hau:

.....Jn./And.

Legezko ordezkaria:.....

IFZ:.....

IFZ:.....

Sinadura:

Sinadura: